

Zergatik da azaroaren 25a Emakumeen Aurkako Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Eguna?

Leonidas Trujilloren diktadurapean hil zituzten Mirabal ahizpak, 1960ko azaroaren 25ean, Dominikar Errepublikan. Haien omenez aukeratu zuten azaroaren 25a Emakumeen Aurkako Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Eguna.



Nazio Batuen Batzar Nagusiak handik urte batzuetara, 1993an, emakumeen aurkako **indarkeria ezabatze**ari buruzko Adierazpena onartu zuen.

Adierazpenak honela azaltzen zuen zer den emakumearenganako indarkeria: “**generoan oinarritutako biolentzia-ekintza oro**, kalte fisiko, sexual edo psikikoak sortu edo **gertatzeko bidean**


jartzen duena. Biolentzia horren adierazle dira, **gertatu bizitza pribatuan gertatu bizitza publikoan**, mehatxuak, presioa edo askatasuna **bidegabeki debekatzea**”.

Batzar horretan argi ikusi zen bazegoela behar bat, hau da, adierazpen bat egin beharra zegoela ezarri beharreko eskubideez, hauek emakumeen aurkako **indarkeria ororen suntsipena bermatuko bazuten**, eta Estatuen konpromisoa ere behar zela, nazioarteko konpromisoa, emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko.

Bukatzeko, Nazio Batuetako Batzar Nagusiak 1999ko abenduaren 17ko 54/134 ebazpenaren bidez **ebatzi zuen** hurrengo urtetik aurrera, azaroaren 25a izango zela Emakumeen Aurkako Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Eguna.

Mirabal ahizpen borroka

Minerva, Maria Teresa eta Patria Mirabal, hiru ahizpa hauek **tinko borrokatu** zuten Dominikar Errepublikan, 1950eko hamarkadan, Leonidas Trujillo diktadorearen erregimenaren aurka. Horregatik behin baino gehiagotan espetxeratu zituzten, bortxatu eta torturatu. Hala ere, **ez zuten etsi** euren borrokan.



Patria, Minerva eta Maria Teresa Mirabal

Hiru ahizpetatik bi, Minerva eta Maria Teresa, **epaitu egin zituzten** 1960ko maiatzaren 18an, Santo Domingon. Eta epaituen senarrak ere bai. Salaketa: "Estatu dominikarraren **segurtasunari erasotzea**". Espetxera bidali zituzten guztiak, baina abuztuaren 9an aske utzi zituzten bi ahizpak. Senarrak ez. 1960ko azaroaren 25ean senarrak bisitatzera joan ziren Mirabaldarrak espetxera. Patria ahizpa ere joan zen bisitan. Espetxetik etxerakoan, Inteligentzia Militarren Zerbitzuko heriotza-eskuadroi batek gelditu zituen errepidean. Auto batera igoarazi zituzten hirurak *La Cumbre* herrira eramateko. Han hil egin zituzten, **eta gero jipoitu**, jendeak auto-istripuz hil zirela pentsatzeko.

Hiru ahizpen hiltzaileak 1962an epaitu zituzten. Hainbat urtetako **espetxe-zigorra ezarri** zieten, baina ez zuten asko iraun giltzapean. Izan ere, Trujilloren aldeko hainbat talde zaleturi esker, Dominikar Errepublikatik ihes egitea lortu zuten.